

Gure segmentazioa:

Merkatu nitxoa izango da, hau da, bezero oso zehatzak eta bereiztuak izango dira. Guk gizonei moztuko diegu ilea oso denbora gutxitan moztu ahal diegulako, normalean ilea gutxi izaten dute eta denak nahi dute mozketa berbera eta gizonen artean gazteetan espezializatu egongo gara. Gaur egun gazte gehienek askotan mozten dutelako ilea eta, gainera, denek ilea antzera mozte nahi dutenez, hau onuragarria izango da guretzat normalean ile-mozketa errazak izaten direlako. Pertsona helduei ilea mozte ere ez da zaila izango eta denbora murriztu batean bukatu ahal izango dugu.

